

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3575

1201/2022 EBAZPENA, maiatzaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Lander Hijona Muruamendaraz jauna hautatzen baita Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Medikoa lanpostua betetzeko.

Aztertua izan da Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Medikoa lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko apirilaren 22ko 1078/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 5eko EHAAn (86. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira. Haren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Lander Hijona Muruamendaraz jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Lander Hijona Muruamendaraz jauna Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Medikoa izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2022ko maiatzaren 30etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.